



El Ayuntamiento de Ansoáin ha desarrollado un proceso de escucha y participación con todos los grupos políticos y con diferentes colectivos afectados a partir de que el Ayuntamiento de Pamplona puso en marcha la regulación de las zonas de aparcamiento de sus barrios limítrofes con nuestro municipio.

Dicho proceso también ha contemplado la recogida de opiniones de la ciudadanía a través de una dinámica participativa de la que se extrajo un documento de conclusiones.

Además de todo ello, se han recogido datos a pie de calle de los efectos concretos que está teniendo en nuestras calles la regulación implantada por Pamplona, necesarios para poder articular a partir de los mismos, la respuesta mejor adaptada y más adecuada posible a esos efectos reales.

Gracias a este proceso, necesario desde nuestro punto de vista para poder articular una solución lo más participada y adecuada posible para hacer frente a una situación de este calado, se extrae como conclusión principal que la propuesta de solución más compartida ha sido la creación en nuestro casco urbano de una zona de aparcamiento restringido (ZAR), de la que puedan disponer las vecinas y vecinos de Ansoáin en determinados horarios y condiciones.

Ésta regulación se pondrá en marcha a partir del próximo lunes 15 de noviembre, con un horario de restricción nocturno de 21,00 horas a 9,00 de la mañana, en el que solo podrá aparcar en nuestro casco urbano el vecindario de Ansoáin o vehículos expresamente autorizados. Para ello, se ha redactado una normativa provisional que ha sido aprobada en pleno y que estará vigente hasta la aprobación de una nueva ordenanza de tráfico, cuya elaboración requiere de más tiempo administrativo.

La aprobación más adelante de esa nueva ordenanza de tráfico nos llevará a la regulación definitiva, en la que se contempla que cada vehículo tendrá su propio distintivo de residente. En esa segunda fase también, se procederá al pintado de las líneas de aparcamiento en color verde, pero de todo ello habrá cumplida información en su momento.

Para poder iniciar esta fase el próximo 15 de noviembre, está prevista la colocación de señales verticales indicativas de la zona regulada y el control de los vehículos aparcados se realizará mediante lectura de matrículas, por lo que es totalmente necesario que el vehículo esté censado en Ansoáin o autorizado por la normativa aprobada.

En el documento que acompaña a este escrito encontrarás preguntas y respuestas a las principales cuestiones sobre esta regulación. Si ello no respondiera a tus dudas se informa también de los canales abiertos para resolverlas.

El Ayuntamiento de Ansoáin viene dando todos los pasos que podía dar de manera responsable desde que tuvo confirmación de lo que Pamplona iba a poner en marcha. Este es un proceso que nos ha venido impuesto por circunstancias ajenas a nuestra voluntad al que se ha intentado buscar la respuesta más participada y adecuada posible en el plazo que nos ha venido impuesto por esas circunstancias.

Hablamos de un cambio muy importante respecto a lo que hemos conocido hasta ahora y, por lo tanto, cualquier decisión debe tomarse huyendo de improvisaciones y ponderando bien lo que Ansoáin realmente necesita como pueblo para adecuarse a esta nueva realidad.

Somos conscientes de que una parte importante de la ciudadanía de nuestro pueblo está sintiendo los efectos negativos de esta situación generada desde Pamplona. El compromiso del Ayuntamiento de Ansoáin ha sido y es el de proponer una respuesta que sea responsable y adecuada en el menor tiempo posible, objetivo en el que han trabajado y están trabajando todos los recursos técnicos de los que disponemos para ello.



Antsoaino Udalak entzuketa eta partaidetza prozesu bat garatu du talde politiko guztiekin eta hainbat talde kalteturekin, Iruñeko Udalak gure udalerriarekin mugakide diren auzoetan aparkatze eremuen erregulazioa abian jarri izanaren ondorioz.

Prozesuan, halaber, herritarren iritziak jaso dira, jendearen parte-hartzea bideratzeko dinamika baten bidez eta, hartatik, hainbat ondorio atera dira, guztiak ere agiri batean bilduak.

Horrez gain, kalean bertan ere datuak bildu dira, Iruñeak ezarritako erregulazioak gure karrketan sortu dituen efektu zehatzei buruz. Datu horien beharrezkoak dira, oinarritzat hartuko baitira efektu horietara hobekien egokitutako erantzunak emateko.

Prozesua beharrezkoa izan da era horretako egoerari irtenbiderik egokiena eta parte-hartzaileena emateko. Bada, prozesuari esker, ondorio nagusi bat atera dugu eta hauxe izan da irtenbide proposamenik partekatuen, hots, aparkaldi murriztuko gunea (ZAR) sortzea, Antsoaino bizilagunek ordutegi eta baldintza jakin batzuetan eskura izanen dutena.

Erregulazio hori azaroaren 15etik aurrera (astelehena) jarriko da abian, eta gaueko murrizketa-ordutegia izanen du, 21:00etatik goizeko 9:00etara, zehazki; hau da, ordutegi horretan, Antsoaino bizilagunek soilik aparkatzen ahalko dute gure hirigunean. Horretarako, araudi bat prestatu da behin-behinekoz, osoko bilkuran onetsia, trafiko-ordenantza berria onartu arte indarrean egonen dena. Ordenantza prestatzeko, denbora administratibo luzeagoa behar da.

Trafiko-ordenantza berria onesten denean, behin betiko erregulaziori helduko diogu eta, orduan, aurreikusia dago ibilgailu bakoitzak bere bizilagun-ezaugarria izatea. Bigarren fase horretan, halaber, aparkatzeko marraz berdez margotuko dira, baina dagokionean emanen da horri buruzko informazio guztia.

Fase hau azaroaren 15ean hasteko, seinale bertikalak paratuko dira eremu erregulatua adierazteko. Bestalde, matrikulak irakurriz kontrolatuko dira ibilgailu aparkatuak; beraz, guztiz beharrezkoa da ibilgailua Antsoainen erroldatua egotea edota onartutako araudiak baimendua egotea.

Idazki honekin batera dagoen agirian galderak eta erantzunak aurkituko dituzu erregulazioaren inguruko gai nagusiei buruz. Hala eta guztiz ere, zalantzarik baduzu, nora jo behar duzun ere adierazia dago horiek guztiak argitzeko.

Antsoaino Udala arduraz ari da ematen eman zitzakeen pauso guztiak, Iruñeak bere erregulazioa abian jarriko zuela jakin zuenetik. Gure borondatez kanpoko inguruabarrek eragindako prozesua da, eta ahalik eta erantzunik egokiena eta parte-hartzaileena ematen saiatzen ari gara, inguruabarrek eragindako epean.

Beraz, oso nabarmen aldatuko da orain arte ezagutu duguna; horrenbestez, erabaki guztiak inprobisaziorik gabe hartu behar dira, eta ongi taxutuz Antsoainek herri gisa egiazki zer behar duen egoera berri horretara egokitzeko.

Badakigu gure herriko herritar asko pairatzen ari direla Iruñeak eragindako egoeraren efektu kaltegarriak. Antsoaino Udalak erantzun arduratsu eta egokia proposatu nahi izan du ahalik eta denborarik laburrenean. Izan ere, eskura ditugun baliabide tekniko guztiek helburu horri begira lan egin dute eta lanean segitzen dute.